

M.A.R.E.A. BALOREZKO PROPOSAMENA



Gizakiok kontzientzia izan dugunetik, kutsadura etengabe handitu da, industriaren eta populazioaren hazkundeak hondakin eta emisio kaltegarriak ugarituta. Plastikoen erabilera masiboak eta hondakinen kudeaketa txarrak itsasertzak eta ekosistemak kaltetu dituzte, ondorio ekologiko, sozial eta ekonomiko nabarmenekin. Testuinguru horretan jaio da M.A.R.E.A. proiektua, ingurumenaren zaintza eta berrikuntza teknologikoa uztartuz.



M.A.R.E.A.-ren helburua hondartzak eta kostaldeko eremuak garbiketa eraginkorrago, iraunkorrago eta autonomoagoarekin mantentzea da. Horretarako, robot autonomo bat garatzen dugu, energia berriztagarrien bidez funtzionatzen duena eta plastiko zein hondakin solidoak biltzeko diseinaturia. Sistema honek adimen artifiziala erabiltzen du hondakinak identifikatzeko eta lehentasunezko eremuak hautatzeko, garbiketa modu arduratsuan eta eraginkorrean egiteko.

Proiektuak ez du kutsadura murriztu nahi soilik; **ingurumen-kontzientzia sustatu** eta erakutsi nahi du teknologia berriei planeta babesteko aliatu izan daitezkeela. Horretarako, M.A.R.E.A. **hiru ardatz estrategiko** ditu:

1. **Iraunkortasuna:** energia berriztagarrien bidezko funtzionamendua, karbono aztarna minimoarekin.
2. **Berrikuntza teknologikoa:** adimen eta ikusmen artifizialaren integrazioa, hondakinen identifikazio eta kudeaketa optimizatua lortzeko.
3. **Ekonomia zirkularra:** bildutako hondakinak berrerabiltzea edo birziklatzea, materialei balio berria emanez eta hondakin-fluxua murriztuz.

Orduan, garapen jasagarrietako 13 eta 14 helburuekin bat egingo dugu.



Hartzaile nagusiak dira kostaldeko udalerriak, ingurumenaren babeserako erakundeak eta turismo iraunkorra sustatu nahi duten erakunde publiko eta pribatuak. M.A.R.E.A.k aukera

ematen die erakunde horiei hondartzak garbi eta seguru mantentzeko, kostuak eta denbora murriztuz, eta gainera, ingurumenarekiko konpromisoa indartuz.



Hasierako fasean, proiektua Euskal Herriko hondartzetan garatuko da, ingurumen-kontzientzia handiko eta aberastasun natural nabarmeneko lurralde batean. La Concha, Zarautz, Sopelana eta Plentzia bezalako hondartzak testuinguru egokiak dira proba pilotuak egiteko, hondartza mota desberdinetan (hiri, natural eta sarbide zailak) sistemaren eraginkortasuna ebaluatzeko. Fase honek aukera emango du robotaren portaera baldintza errealetan aztertzeko eta udal, elkarte eta unibertsitateekin lankidetzak estrategikoak ezartzeko.

Horrez gain, M.A.R.E.A.ren garapena eta hedapena errazteko, hainbat erakunde eta enpresarekin lankidetzak estrategikoak bilatuko dugu.

Aliantza horien bidez, M.A.R.E.A.k ezagutza, baliabide eta teknologia aurreratuak bateratu nahi ditu, proiektuaren inpaktua eta efikazia handitzeko.

Azken batean, M.A.R.E.A. ez da soilik robot bat, baizik eta itsasertzen kudeaketa jasangarriaren aldeko ikuspegi berritzaile eta integrala. Ingurumenaren aldeko teknologia aplikatua da, eta bere helburua da gure kostaldeen garbitasuna eta osasuna bermatzea, etorkizun hurbilean planetaren iraunkortasunaren aldeko eredu inspiratzaile bihurtuz.

